

Udalerri Euskaldunen Eguna

Ekitaldiak • 2

Egitarau oparoa
arratiarren
laguntzarekin osatua

Uemako udalerrriak • 3

Bakioekin eta
Arantzazurekin, 87 kide
izango ditu Uemak

Elkarrizketa • 4

Josu Labaka: «Asmoa da
erabilera handiko eremuak
zabaltzen joatea»

berria

2018ko maiatzaren 25a

Testuak: Miren Garate

Udalerri euskaldun guztien eguna

Diman egingo da Udalerri Euskaldunen
Eguna maiatzaren 26an, *Euskara*,
gure lurra lelopean, udalerrri
euskaldunek egindako lana
ikusarazteko.



Diman izango da aurtengo Udalerrri Euskaldunen Eguna. Jai giroko ekitaldiez gain, ekitaldi instituzionala eta batzar nagusia ere egingo dituzte.

Euskara ongarritzeko eguna

Badira lau urte aldaketa egitea erabaki zutela: ordutik ez zaio Uema Eguna esaten, Udalerrri Euskaldunen Eguna baizik, Uemako kideez gain gainerako udalerrri euskaldunetako kideek ere hartzen dutelako parte. Bi urtean behin egiten da, eta Diman (Bizkaia) izango da aurtengo, maiatzaren 26an. Udalerrri euskaldunek egindako lana ikusarazteko eta aurrera begira dituzten eronken berri emateko eguna izango da, festa giroko ekitaldiz lagunduta.

Euskara, gure lurra leloa aukeratu dute: «Euskara baita herri hau loratu dadin ezinbestekoa den lurra. Euskara baita herri honen sustraiek duten ongarrinatu-

rala. Euskara da gure lurra». Batzar nagusiarekin hasiko da eguna. Bizkaiko Arantzazu eta Bakiok ere Ueman sartzeko eskatu dute, eta espero da batzar horretan baiezkoa ematea. Horrenbestez, Uemak 87 kide izango ditu. Guztien artean, 250.000 biztanleko lurguneeuska duna osatzen dute. Gaur egun, 175 udalerrri inguru dira udalerrri euskaldunak, biztanleen %70etik gora euskalduna dutenak; beraz, horien erdiak dira Uema mankomunitateko kide.

Ondoren, *Udalerrri euskaldunak eta euskalgintza* mintegian, herritarrek protagonista dituen egitasmoan izandako esperientziak partekatuko dituzte, <ideiak hartzeko eta aurrera be-



2016an, Leitzan egin zen Udalerrri Euskaldunen Eguneko ekitaldi instituzionala. UEMA

girako bidean konplizeak ere baditugula sentitzeko».

Elkarlanean

Hasieratik, instituzioen, eragileen eta herritarren arteko elkarlana bultzatzea izan da Udalerrri Euskaldunen Egunaren asmoetako bat. Hala, erakunde publikoetako, euskalgintzako eta zenbait arlotako ordezkariak izango dira ekitaldi instituzionalean. Udalerrri euskaldunek euskararen normalizazioari zer ekarpen egiten dioten nabarmenduko dute.

Gainerakoan, festa giroko ekitaldiak izango dira nagusi. Uemak bereziki eskertu du eguna

prestatzeko izan duten laguntza. Izan ere, Arratiako Udalen Mankomunitateko eta Dimako Udaleko ordezkariak ez ezik, antolaketan lanetan aritu dira Abizari euskara elkarte, Dimesten, Zamakola elkarte, Andraizea, Dimetaleroak, bertso eskola eta Dimako Eskolako Guraso Elkarte. Abesti bat ere egin dute elkarlanean: Ibon Izak idatzi ditu hitzak, Kepa Elgoibarrek jarri dio musika eta Dimako eta Arratiako herritarren eta elkarteetako ordezkarien aholtekin grabatu dute.

Gainera, ohi baino egitarau luzeagoa izango da aurtengo. Iazko urrian, Salto Gazte Topaketak

egin zituzten Orion (Gipuzkoa), eta, maiatzaren 25ean, besteak beste, han parte hartu zuten gazteei harrera egingo diete Dimako udalerrri euskaldunen Egunean ere gazteek elkar ezagutzeko egitarau berezia antolatu dute.

EGITARAUA

Maiatzak 25, ostirala: 19:00. Harrera, udalerrri euskaldunetako topaketetako gazteei. 20:00. Pilota desafioa. 22:00. Kontzertua Zazkel taldearekin. 23:30. Euskal Karaokea, tabernetan.

Maiatzak 26, larunbata: 10:00. Uemaren batzar nagusia. 10:15. Mintegia: *Udalerrri euskaldunak eta euskalgintza*. 11:00. Mintegia: *Gazteak eta euskara, inertziaz kontzientziara*. 11:00. Haurrentzako jolasak. 12:00. Kalejira, buruhandiekin, txotxongiloekin, Jentilixu eta Jentilirekin. 12:30. Ekitaldia. 13:15. Kantujira. 14:45. Bertso bazkaria, Unai Iturriagarekin eta Jon Maiarekin. 18:30. Herri kirolak. 20:00. Areatzako batukada. 22:00. Kontzertua Egurra Ta Kito taldearekin. 23:00. Erromeria Ezten Giro taldearekin.



*euskara, gure lurra
zazpi itsaso ditut nabigatu
gau beltzengatik bihurtu naiz katu
berdin gara soka edo zaku
baina beti zaitut nik maitatu*





Bakio eta Arantzazu herrien ikuspegi bana. UEMA



Faktore ezberdinak direla medio, euskararen erabilerak behera egin du Bakion eta Arantzazun. Ueman sartuta, hizkuntza politika aurrerakoiak egin nahi dituzte.

Gainbehera iraultzeko helburua

Nola eraikitzeko moduak eragina duela?». Galdera hori askotan entzun izan dute Bakion. Udaleko ordezkariak argi dute baietz. Ekonomiararen oparoaldian, modu masiboan eraiki izan da herrian, kanpoko jende asko joan da, eta horrek desoreka sortu du. «Gure herrian inoiz ez da kontuan hartu etxegintzak euskararen edo harremanetan izandako eragina, filosofia hori falta izan zaigu», azaldu du Amets Jauregizar Baraiazarra alkateak.

Asko aldatu da Bakio azken urteetan, eta euskararen egoerarekiko kezka ere aspalditik dute, duela 20 bat urtetik igartzan baitzuten gain behera zihola erabileren. Aurretik ere izan dute buruan Ueman sartzeko aukera: «Baina ez genuen betetzen indizearen baldintza: euskaldunak %70etik gora izatea. Gainera, orain arte, gure egoera ekonomikoaren eraginez, ez geunden horrelako gastuetarako». Azken hiruzpalau urteetan euskaldunen

kopuruak gora egin izanak eta egoera ekonomikoa pixka bat hobetu izanak bultzatu ditu, orain, pausoa ematera.

Ueman sartuta, egoera iraultzeko eta euskararen aldeko hizkuntza politika aurrerakoia egiteko desioa dutela iragarri du alkateak. «Krisia hasi zenetik, etxebizitzarik ez da egin. Orain pixkaka hazten joatea da asmoa, baina ez orain arteko moduan. Hirigintza eredu berria, ekonomia eredu eta abar aztertzea to-

katzen zaigu, baina plan berri horietan hizkuntzaren eragina ere neurtuko da».

Apirilaren 26an egindako osoko bilkuran onartu zuten mankomunitatean sartzeko eskaera egitea, aho batez, EH Bilduko lau zinegotziek, EAJko bostek eta Bakio Baiako biek baietz bozkatu baitzuten. «Gaia lehendik geneukan landuta, eta arazorik ez dugu izan onartzeko». 2.604 biztanleko herria da, eta, horregatik, hiru ordezkari dagozkio Bakiori Ue-

maren batzar nagusian. Alderdi bakoitzeko kide bana izendatu dute.

Taberna giroan, erdaraz

Ez da hori izan Arantzazuren kasua. Zazpi hautetsik osatzen dute udalbatza: EH Bilduko lau zinegotziek Ueman sartzearen alde egin zuten, eta EAJko hirurek kontra. Igor Meñika Bengoetxea alkatearen esanetan, Arantzazu beti izan da herri euskalduna, baina azkenaldian, «sintoma ba-

tzuk» igarri dituzte: «Taberna bi bakarrik daude herrian, eta taberna bietako zerbitzariak justu erdaldunak dira, orduan tabernan ere gehiago egiten da erdaraz; umeak ere plazan orain arte euskara hutsean ibiltzen ziren, baina, orain, jolas batzuetan erdaraz entzuten dira».

Herriak 376 biztanle ditu, eta %76 dira euskaldunak. «Euskara asko entzuten da, baina nahiz eta euskaraz jakin jende askok erdaraz egiten du, eta Arantzazu beti izan da arnagune bat». Ueman sartuta, diagnosi bat egin nahi dutela azaldu du alkateak, ondoren, beharrezko neurriak hartzeko. «Militantziagatik» ere hartu dute erabakia: «Udalerrri euskaldun bat garelako eta denon artean indar gehiago egingo dugulako banan-banan baino».



365 egunez euskaraz gara!

azpemiko udala
denon artean

Hizkuntza ikuspegia «beti» txertatuta dagoela dio Josu Labakak (Azpeitia, Gipuzkoa, 1978), Uema Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko lehendakariak, eta euskara hedatzearen alde ez bada egiten horren aurka egin ohi dela. Hizkuntza politikaren zeharlerrotasuna ezinbestetzat du Uemak, eta euskararen erabilera bideratzeko politikak egiteko eskatzen die erakundeet.

Bakio eta Arantzazu onartutakoan, 87 kide izango ditu Uemak. Euskal Herriko udalerrri euskaldunen erdiak dira gaur egun mankomunitateko kide. Zein da alde horretatik egiten duzuen balorazioa?

Uema erakunde gisa sendotzen ari dela ikusten da. Batetik, herri kopurua igotzen ari da, eta hori esanguratsua da, herri euskaldunak herri euskaldun diren kontzientzia hartzen ari direlako, eta euskara erabiltzeko borondate bat erakusten duelako horrek. Bestetik, Uema bera ere eragiteko duen ahalmena sendotzen ari da, eta udalerrri euskaldunetako udalen aitortza ez ezik beste erakundeena ere ari da lortzen. Uemak argi jarri du zein diren bere oinarriak, bere eragite esparrua, nora jo nahi duen... Argitze prozesu bat izan da, eta horren bueltan adostasun zabalak lortzeko gaitasuna izan du. Horrek ere bere potentzialtasuna biderkatu egiten du.

Udalerrri Euskaldunen Eguneko ekitaldi instituzionalean udalerrri euskaldunek euskararen normalizazioari egiten dioten ekarpena nabarmenduko duzue.

Helburu nagusia euskararen normalizazioa da, eta nazio ikuspegiatik planteatzen den gauzetako bat da udalerrri euskaldunetatik eragitea normalizazio horretan. Euskararen erabilera handiko eremu batzuk baditugu, eta horrek aukera ematen digu normalizazioan eragiteko. Azkenean, Uemaren proposamena da Euskal Herria nazio gisa euskaratik eraikitzea,



JUAN CARLOS RUIZ / FOKU

«Udalerrri euskaldunen sozioekonomia garatzeak ekarriko du hedapena»

Josu Labaka • Uemako lehendakaria

Euskal Herria euskaratik eraiki behar bada euskara nagusi den eremu horietatik abiatuta eraiki beharko dela proposatua du Uemak, beste guztia ere kontuan hartuta.

eta Euskal Herria euskaratik eraiki behar bada, euskara nagusi den eremu horietatik abiatuta eraiki beharko da, beste guztia ere kontuan hartuta, eta tokian tokiko errealitate linguistikoa kontuan hartuta.

Udalerrri batek nahitaez euskalduna izan behar du arnagune

izateko, baina udalerrri euskaldun guztiak ez dira arnagune. Zer egin daiteke arnaguneak garatzeko?

Arnaguneak babestez hitz egiten dugunean, indiarren erreserba moduko bat planteatzea ere leporatu izan zaigu, baina, horri buelta emanez, hau aldarrikatzen

dugu: XXI. mendeko udalerrri euskaldunak munduari irekita eta konektatuta bizi direla, eta haien sozioekonomia garatzeak ekarriko duela hedapena. Herri horietako herritarrei eman behar zaie bertan bizi eta lan egiteko aukera; behar horiei erantzutea ere lehentasunezkoa izango da. Egi-

ten dugun proposamena hau da: garapenerako ariketa bat egitea, arlo ezberdinetan hizkuntza kontuan izanda. Erabilera handiko eremu horiek pixkanaka zabalduz joatea da asmoa. Eta guk hau ez dugu euskararen normalizazioarako estrategia bakar moduan planteatzen, beste askoren artean bat da, baina arnagune horiek baditugunez, eta horiek normalizazioarako bidean motor lan garrantzitsua egin dezaketenez, balia dezagun hori ere.

Hizkuntza politikaren zeharlerrotasuna ezinbestekoa dela nabarmendu du Uemak. Besteak beste, lurralde antolaketarako gidalerroak finkatzeko prozesuan parte hartu duzue, baina azken bertsiotik kendu egin dute euskara. Nola dago kontu hori?

Bada, hortxe; bilerak -eta eskatuak ditugu. Oso argi ikusten da Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak borondate ona duela, baina Jaurlaritzak bere osotasunean ez duela txip hori. Eta euskararen erabilera sustatzeko euskalgingitzarekin elkarlanean aritzea ondo dago, baina, gero, erakunde publikoek erabilera hori bideratzeko politikak egitea ere ezinbestekoa da. Askotan esaten da: «Hizkuntza ikuspegia txertatu behar da edo ez?». Baina hizkuntza ikuspegia beti dago txertatuta, eta, euskara sustatzearen alde ez bada egiten, euskara hedatzearen aurka egiten da. Orain arte ere hizkuntza ikuspegia txertatuta joan da politiketan.

Zeharlerrotasun horren garrantzia ulertzea kostatzen da?

Ulertzea ez, gehiago kostatzen da hizkuntza ikuspegia beste eremuetan nola txertatu asmatzea. Beharbada guk ere aitortu behar dugu, kontzientzia eduki arren, orain arte ez dugula tresnarik eduki, egon dela gabezia bat. Azken 4-5 urteetan laborategiko lan bat egin da, eta eragin linguistikoa ebaluatzeako tresnak sortu dira. Aurrera goaz horretan ere.

UDALERRI EUSKALDUNEN EGUNA

Diman, 2018ko maiatzaren 26an

EUSKARA, GURE LURRA



Egunari buruzko informazio guztia:
uema.eus + dima.eus

